

PRENTSA OHARRA

Jai Alai World Tour-eko Master Series-a

Zesta puntako goi mailako pilotariak izango dira **uztailaren 22an eta 29an Mutriku eta Markina-Xemeingo pilotalekuetan**; izan ere, Jai Alai World Tour-eko Master Series-a bat jokatu da aipatutako herrien artean, Gernika Jai Alai enpresari dagokion multzoko pilotariek.

Hori horrela, **bihar, uztailak 14, eguerdiko 12:30ean, partida horien aurkezpena egingo da Mutrikuko udaletxean**. Bertan, Mutrikuko eta Markina-Xemeingo udaletako ordezkariak, bi herrietako zesta punta eskoletako ordezkariak eta Erik, Txasio eta Aldazabal pilotariak egongo dira (laugarren pilotari bat ere bertaratuko da).

Uztailaren 22an, gaueko 22:30ean, Mutrikuko Miruaitz pilotalekuan, ondorengo pilotariek jokatu dute finalerdia:

Hormaetxea – Lekerika vs Beaskoetxea – Amigorena

Erik – Aldazabal vs Barandika – Txasio

Finalerdietako lehenengo partiduan, Alex Hormaetxea bermeotarrak eta Unai Lekerika gernikarrak osatuko dute bikoteetako bat, eta Diego Beaskoetxea gernikarrak eta Mikel Amigorena gasteiztarrak bestea.

Finalerdietako bigarren partiduan, Erik Mendizabal mutrikuarrak etxean jokatu du; bere atzelaria Ibon Aldazabal berriatuarra izango da. Bikote honen aurkariak Xabi Barandika genikar gaztea eta Ortzi Goiri “Txasio” markinar-xemeindarra izango dira.

Uztailaren 29an, gaueko 22:00etan, Markina-Xemeingo Uni pilotalekuan finala jokatu da.

Mutrikuko finalerdietarako sarrerak 10 eta 12 eurotan salgai egongo dira eta Markina-Xemeingo finalerako sarrerak, berriz, 15 eurotan.

Aipatutako sarrerak leihatilan edota ondorengo telefono zenbakira deituta lortu ahalko dira:

Mutriku: 634 426 588

Markina-Xemein 688 813 775

Markina-Xemeinen, 2016ko uztailaren 13an.